


Larraungo Alli herriko azentu ereduaz

IÑAKI GAMINDE*

L antxo honetan Larraungo Alli¹ herriko euskararen azentu ereduarekin hurbilpen akustikoa² aurkeztu nahi dugu. Bonaparteren euskalkien sailkapenari dagokionez, Alli herria Ipar goi nafarreraren Huarte-Arakil barietatearen barruan kokatzen da, ondoko mapan ikus daitekeen bezala.



Lana lau multzo nagusitan banatuta aurkezten dugu; lehenbizikoan isolatuki jaso ditugun hitzen azterketa ematen dugu; bigarrenean, galdagaigu-

* UPV-EHU.

1. Gure lekukoa Belen Satrustegi 33 urtekoa izan da.

2. Neurketa akustikoak egin ahal izateko Inmaculada Hernáez-ek egindako "Ahotsa" aztergailua erabili izan da.

nean jaso ditugun hitzen emaitzak aztertzen ditugu, hala nola, azentu errege-
la nagusiak ere bai. Hirugarren zatian deklinabidearen azentua aztertuko da
eta laugarrenean aditz jokatuena. Azkenik, azentu eredu honi buruzko ezau-
garri nagusiak labur-biltzen ditugu.

1. HITZ ISOLATUAK

Atal honetan isolatuki jaso ditugun izen eta adjetiboen emaitza akustiko-
ak ikusiko ditugu lehenengo eta behin, geroago aditz partizipio zenbaiten
emaitzak ere ikusteko.

1.1. Izen eta adjetibo isolatuak

Silaba bi (ó-o)

auntze	212	198	neska	196	186
astöa	189	174	ona	196	192
aza	196	188	ollöa	193	170
lurre	195	191	maize	216	207
bjuda	203	187			

Hiru silaba (ó-o-ò)

ardii	199	175	183	bidii	200	170	178
katuu	203	175	175	errota	203	182	194
txarrii	205	179	181	erlii	210	181	181
buruu	205	177	180	txorii	200	173	171
aarra	194	176	189	egurre	196	179	182
txakurre	203	181	190	alaba	182	168	178
belarra	193	173	181	ollasköa	210	180	210


Lau silabakoak (ó-o-o-ò)

sokaldii	210	185	193	200	arratori	207	195	186	203
abeatsa	194	188	176	178					

Hitz isolatuen emaitzen mediak ondoko taula honetan ikus daitezke:

	1. silaba	2. silaba	3. silaba	4. silaba
ó-o	199	188	-	-
ó-o-ò	200	176	183	-
ó-o-o-ò	203	189	185	193

Azentu nagusia hitzaren lehen silaban ezartzen da, beronen media 200
hertzekoa da. Azentuaren osteko silabaren media 181 hertzekoa da. Silaba bi
baino gehiagoko hitzetan azken silaban azentu bigarrenkaria dugu beronen
media 185 hertzekoa delarik.



1.2. Aditz isolatuak

Silaba bikoak (ó-o)

erre	210	199
galdo	204	193
saldo	210	200
esan	218	204


ean	210	194
josi	210	200
arto	232	206
media	213	199

Hiru silabakoak (ó-o-ò)

ekarri	210	190	203
beoto	216	196	216
eskato	217	196	198
media	214	193	205

ikusi	223	201	207
zorrozto	214	193	205
garbittu	205	182	205

Aditz partizipio isolatuetan izen eta adjetiboetako eskema berberak ditugu. Lehen silaban ezartzen den azentuaren media 213 hertzekoa da. Azentuaren osteko silabarena 196 hertzekoa da.



2. HITZAK GALDEGAIGUNEAN

Atal honetan galdegaigunean jaso ditugun hitzen emaitza akustikoak aztertuko ditugu. Azterketa hobeki egin ahal izateko, lehenbizian singularrak aztertuko ditugu eta geroagoko azpi-ataletan mugagabeak eta pluralak.

2.1. Singularrak

Hemen ematen ditugun hitzak galdegaigunean jaso ahal izateko erabili ditugun testuinguruak “saldu do, bota do, sartu da eta etorri a” izan dira. Hitz batzuk behin baino gehiagotan agertzen direnean, testuinguru desberdinetan jaso direlako da.

Silaba bikoak:

(ó-o)

beltza	227	202
ollöa	225	204
planta	190	176
aza	199	178
zarra	221	186
ona	232	196
sorra	247	199
lurre	221	195
neska	230	175
ollöa	214	171
eurre	236	172
aizpe	228	184
eröa	220	202
arra	209	205

maize	218	194
astöa	221	210
ure	216	190
eurre	217	188
auntze	208	189
lurre	198	176
laune	208	191
ure	240	196
astöa	228	183
laune	214	171
planta	199	170
neska	210	194
bjuda	208	184
media	217	188

(o-ó)

basöa	210	225
media	194	227

basöa	179	229
-------	-----	-----

Hiru silabakoak:

(ó-o-o)

ardii	224	215	192
eltzii	225	210	187
lorii	222	206	191
bidii	225	220	189
erlii	232	213	191*
txerrii	206	193	175
ollasköa	211	183	193
obii	227	206	193
taerna	201	195	177
semii	239	210	179
katuu	227	179	155

errota	225	218	181
aarra	211	206	194
txorii	219	206	192
etxii	218	210	173
zakurre	220	213	191
saarra	209	196	180
katuu	210	189	168
belarra	209	198	173
umii	240	210	192
errii	230	216	170
zakurre	226	213	166

zakurre	222	184	177
intxaurre	217	167	180
errota	230	207	187
taerna	225	189	172
apeza	232	218	203
koñadöa	207	181	199
semii	227	206	186
gaztii	206	197	176
(o-o-ó)			
mediku	185	194	219
media	194	198	223

saarra	211	196	161
patata	199	189	166
alaba	215	208	190
ollasköa	233	196	181
gizona	203	203	176
lapurre	210	210	186
alaba	216	206	181
media	219	201	181

lengusi	203	203	228
---------	-----	-----	-----

Lau silabakoak:



(ó-o-o-o)

tellatuu	217	200	169	171
alkatii	217	205	184	165
sokaldii	215	198	204	210
esenii	218	215	187	178
media	216	204	189	183

abeatsa	211	203	187	183
abeatsa	225	197	197	180
telatuu	218	214	195	177
arratori	210	203	189	205

Galdegaigunean jaso ditugun hitzen emaitzen mediak ondoko taulan ikus daitezke:

	1. silaba	2. silaba	3. silaba	4. silaba
ó-o	217	188	-	-
ó-o-o	219	201	181	-
ó-o-o-o	216	204	189	183
o-ó	194	227	-	-
o-o-ó	194	198	223	-



Silaba azentudunaren mediak agertzen den egongunearen arabera, ondo-ko era honetara eman ditzakegu:

	1. silaban	2. silaban	3. silaban
Azentuduna	218	227	223

Azentuaren aurreko zein osteko silaben media 196 hertzekoa dugu.

Azentuaren azterketa egin baino lehen lexemari artikulua eranstea ger-
tatzaren diren bokal egokitzapenak kontutan hartu behar ditugu; badirudi
eurok ondoko erregelen bidez azal ditzakegula:

- (1) a → Ø / — a ##
- (2) e → i / — a
- (3) a → e / i,u (C) —
- (4) e → V1 / V1 —
- (5) o → -Sil. / — a

	neska+a	bie+a	obi+a	asto+a	buru+a
Afijazioa	neskaa	bidea	obia	astoa	burua
(1)	neska	-	-	-	-
(2)	-	bidia	-	-	-
(3)	-	bidie	obie	-	burue
(4)	-	bidii	obii	-	buruu
(5)	-	-	-	astöa	-
azkenik	neska	bidii	obii	astöa	buruu

Azentuaren ezarketaren erregela [→1 dugu; silaba bi baino gehiagokoa
denean azentu bigarrenkaria ezar daiteke azken silaban, nahiz amaiera abso-
lutuan egon ezta berau ez den beharrezko. Hitz markatuak azentu nagusia
azken silaban dutenak ditugu; guri basöá (edalontzia), medikú eta lengusí
baino ez zaizkigu agertu. Bestalde, badirudi azentuaren eraginagatik bokalak
degeminatu ere egiten direla. Azentu hau hitzarena izanik, deribazioak hone-
la eman ditzakegu:

	basó+a	lengusí+a	medikú+a
Afijazioa	basóa	lengusía	medikúa
(3)	-	lengusíe	medikúe
(4)	-	lengusíi	medikúu
(5)	basöá	-	-
i,u → Ø/i, ú—	-	lengusí	medikú
azkenik	basöá	lengusí	medikú

2.2. Mugagabea

Hitzak mugagabe erara jaso ahal izateko “iru” zenbatzailea erabili dugu,
jarraian jaso ditugun enaitza akustikoak ematen ditugu:

iru beltz	229	216	187	-	-
iru txerri	217	195	187	200	-
iru ollo	222	208	196	217	-
iru eltze	244	201	191	232	-
iru auntze	230	196	183	220	-

iru txori	215	197	206	211	-
iru zakur	244	201	189	215	-
iru ardi	227	199	177	207	-
iru katu	221	193	190	214	-
iru saar	227	205	203	210	-
iru bide	232	210	191	215	-
iru obi	205	193	182	202	-
iru tellatu	214	194	194	204	207

Ikusten denez azentu nagusia lehen silaban ezartzen da [→1 erregelaren arabera. Sintagmaren bigarren atala bi edo hiru silabakoa denean azentu bigarrenkaria agertzen zaigu azken silaban.

2.3. Pluralak

Izen eta adjetiboen pluralak azterzeko aukeratu ditugun hitzen emaitza akustikoak ikusiko ditugu lehendabizi.

Silaba bikoak:

(o-ó)

beltzak	222	243
eltzik	211	216
basöak	203	228
urek	195	200
etxik	194	205
lurrek	198	210
lurrek	258	282
neskak	194	199
errik	214	223
neskak	189	206
media	204	218

maizek	205	211
gatzak	196	205
plantak	203	215
auntzek	216	229
erlik	190	199
katuk	190	200
urek	212	219
obik	196	218
basöak	188	232
arrak	210	225

(ó-o)

ollöak	225	194
eurrek	215	194
ollöak	213	182
eurrek	221	172
eröak	203	187

astöak	224	186
astöak	227	185
launek	198	172
launek	226	194
media	216	187

Hiru silabakoak:

(ó-o-o)

ardiik	231	216	206
aarrak	232	196	192
sokaldik	209	191	203
tellatuk	218	187	177
saarrak	203	183	178
taernak	196	187	183

errotak	218	202	193
txoriik	214	205	200
zakurrek	225	195	186
esenik	196	186	177
belarrak	206	184	181
saarrak	204	175	186

intxaurrek	210	181	204	patatak	193	178	178
errotak	208	186	176	alabak	204	187	180
arrebak	206	196	185	taernak	207	177	169
afarik	194	177	174	bazkarik	186	172	164
tellatuk	209	188	179	mutillek	221	198	189
gizonak	203	193	178	lapurrek	210	196	196
alkatik	203	196	184	alabak	204	192	187
media	208	189	184				
(o-o-ó)							
medikuk	202	194	213	lengusik	204	228	273
media	203	211	243				

Lau silabakoak:

(ó-o-o-o)							
abeatsak	209	187	177	174	arratorik	221	207 190 190
abeatsak	201	195	189	174	media	210	196 185 179

Ematen ditugun datuak aztertzeko, lehenengoz kontutan hartu behar dugu ezen, beti gertatzen ez bada ere, bokal bikoitzen degeminazioa gertatzen dela; adibidez:

etxik, obik, errik, sokaldik, e.a.

Silaba bateko oinetan azentua pluralaren morfema duen silabak hartzen du: beltzák, gatzák, e.a. Silaba biko oinetan, bokalen degeminazioa gertatzen bada azentua azken silaban ezartzen da: etxík, obík, errik, e.a. Alabaina, bokalen degeminazioa ez badago eta "o"z amaituko hitzetan azentua lehen silaban geratzen da. Gainerako hitzetan azentua lehen silaban ezartzen da.

Datu guzti hauek ulertzeko proposa dezakegun analisisian azentu nagusia hitzarena litzateke, hitz ez markatueta [→1 erregelaren arabera ezarriko litzateke. Pluralaren morfema azentuduna dukegu 'ák'; baina, afijazioen ostean, ezentu bi elkarren ondoan agertzen direnean, lehen azebatuko litzateke; elkarren ondoan agertzen ez badira, lehenari eusten zaio, bigarren azebatu egiten dela. Azentu egokitzen hau 'o' bokalaren izaera silabikoa galdu baino arinagokoa izango litzateke. Deribazioak honela eman ditzakegu:

	obi+ák	asto+ák	beltz+ák	sokalde+ák
[→ 1	óbi+ák	ásto+ák	béltz+ák	sókalde+ák
Afijazioa	óbiák	ástoák	béltzák	sókaldeák
e→i/ — a	-	-	-	sókaldeák
a→e/i,u (C) —	óbiek	-	-	sókaldeák
e→V1/ V1 —	óbiík	-	-	sókaldeák
i→Ø/ — ik	óbík	-	-	sókaldeák
Azentu egokitu	óbík	ástoak	beltzák	sókaldeák
o→ -Sil / — a	-	ástöak	-	-
Azkenik	óbík	ástöak	beltzák	sókaldeák
	neska+ák	errota+ák	lagun+ák	ardi+ák
[→ 1	néska+ák	érrota+ák	lágun+ák	árdi+ák
Afijazioa	néskaák	érrotaák	lágunák	árdiák

a→Ø/ — ák	néskák	érroták	-	-
a→e/i,u (C) —	-	-	lágunek	árdiék
e→V1/V1 —	-	-	-	árdiík
i→Ø/ — ík	-	-	-	-
Azentu egokitu	neskák	érrotak	lágunek	árdiik
g→Ø /V — V	-	-	láunek	-
Diptongoa	-	érrotak	lawnnek	-
Azkenik	neskák	érrotak	lawnnek	árdiik

3. DEKLINABIDEAREN AZENTUA

Deklinabidearen azentua aztertzeko, hitz batzuten paradigmak osatu ditugu, bai singularrean bai pluralean. Kasu guztiak galdegaigunean eta esaldiaren hasieran jaso dira. Datuak aurkezteko bizidun eta bizigabeen deklinabideak bereiztu egingo ditugu.

3.1. Bizidunen deklinabidea

NESKA

Singularra

néska	211-185
néskak	199-190
néskae	211-184-171
néskaena	236-195-177-169
néskaeken	195-176-164-159
néskaentzat	205-198-180-166

Plurala

neskák	190-195
neskák	190-201
neskaé	218-219-236
neskená	203-215-242
neskakén	210-215-239
neskantzát	185-198-221

LAUN

Singularra

láune	215-178
láunek	223-180
láunei	211-170
láuneena	213-188-173-168
láuneeken	205-189-179-171
láuneentzat	206-192-173-165

Plurala

láunek	202-185
láunek	196-174
láunee	218-214-202
láunenà	203-175-201
láunekèn	204-175-201
láunentzàt	208-174-203

LENGUSI

Singularra

lengusí	203-203-228
lèngusík	200-176-206
lèngusjéri	217-177-227-203
lèngusjéna	199-189-258-177
lèngusjéken	220-198-235-187
lèngusjéntzat	206-192-211-209

Plurala

lengusík	204-228-273
lèngusík	195-178-198
lèngusjéri	196-191-210-194
lèngusjéna	209-209-246-198
lèngusjéken	213-235-268-254
lèngusjéntzat	201-197-250-188

GAZTE

Singularra

gáztii	206-197-176
gáztiiik	240-223-193
gáztiiiri	225-221-188-188
gáztiiina	210-203-192-185
gáztiiiken	232-225-196-189
gáztiiintzat	213-208-179-189

Plurala

gaztík	196-203
gaztík	215-228
gazterí	204-221-237
gaztená	209-212-229
gaztekén	209-218-244
gaztentzát	196-203-227

Datuetan ikusten denez, singularretan absolutuaren eskema berberari eusten zaio paradigma osoan. Pluraletan, hitz markatueta³ izan ezik, azken silaban paratzen da.

3.2. Bizigabeen deklinabidea

ERRI			
Singularra		Plurala	
érriin	230-213-206	erritán	215-226-266
érrie	233-213-185	erritáa	202-214-247-211
érrittik	257-238-198	èrritátik	198-191-225-196
érriköa	215-199-170	èrritáköa	202-190-204-184
érrieño	203-202-186-172	èrrtáaño	189-185-199-185-169
BIDE			
Singularra		Plurala	
bídin	228-222	bìdetán	218-187-225
bídea	230-205-177	bìdetáa	206-190-222-197
bídetik	234-224-166	bìdetátik	202-195-221-193
bídeköa	224-206-185	bìdetáköa	226-213-238-200
bídeaño	220-209-192-178	bìdetáaño	206-199-236-204-178
TAERNA			
Singularra		Plurala	
táernan	204-201-191	tàernatán	211-186-180-217
táerna	195-192-166-155	tàernatáa	233-197-189-237-188
táernatik	225-223-210-189	tàernatátik	222-198-187-240-203
táernaköa	226-218-218-196	tàernatáköa	216-199-180-232-216
táernaño	198-190-171-163-177	tàernatáaño	206-191-182-215-200-179

Bizidunen deklinabidean, singularreko paradigmaren lehen silabaren azentuari eusten zaio, pluraletan -TA morfemak beregaintzen du azentu nagusia, hitzaren azentua bigarrenkari bihurtzen delarik.

4. ADITZ JOKATUAK

Aditz jokatuaren azentua aztertu ahal izateko jaso ditugun adibide guztiak esaldiaren hasiera absolutuan agertu dira ‘gaur’, ‘beti’ eta ‘biar’ hitzen aurrean.

4.1. Aspekto perfektua

Silaba batekoak:			
ó-o		ó-o-o	
íl da	256-200	íl zaizo	257-228-184
jó ot	238-202	jó ozo	227-210-194
ján dot	261-210	ján dozo	222-206-185
Silaba bikoak:			
ó-o-o		ó-o-o-o	

3. “Laun” hitza nolabaiteko markatutzat ere har genezake.

érre ot	234-211-184	érre ozo	213-209-190-188
éan dot	219-211-182	éan dozo	218-214-184-192
gáldo ot	211-169-161	gáldo ozo	225-203-196-190
jósi ot	234-196-177	jósi ozo	225-199-176-173
sáldo ot	226-178-164	sáldo ozo	214-184-173-167
Hiru silabakoak:			
ó-o-o-o		ó-o-o-o-ò	
íillia	247-228-174-166	íilli zaa	234-227-209-181-176
éosi ot	215-209-187-176	éosi ozò	218-207-189-175-196
ékarri ot	211-201-169-157	ékarri ozò	206-200-178-169-196
íkusi ot	240-236-192-177	íkusi ozò	223-216-176-164-185
béoto ot	239-232-203-179	béoto ozò	210-206-183-175-181
éskato ot	218-213-195-178	éskato ozò	225-221-185-180-187

Datuetan ikusten den bezala, lehenaldian azentua lehen silaban kokatzen da, hiru silabako partizipioekin, eta laguntzailea silaba bikoia izanik, beronen azken silaban azentu bigarrenkaria ere ezartzen da.

4.2. Aspekto ez perfektoa eta geroaldia

Silaba batekoak:			
iltzén zaizo	226-235-215-189	ilkó zaezo	255-267-249-196
jotzé ozo	236-258-250-199	jokó ozo	204-215-209-201
jaté ozo	216-225-221-200	-	-
Silaba bikoak:			
erretzé ozo	196-198-222-216-192	èrrekó ozo	210-190-204-199-188
èaté ozo	218-203-225-219-198	eáin dozo	198-207-191-189
galtzé ozo	192-217-208-201	gáldokó ozo	204-191-212-204-180
josté ozo	193-225-218-185	jòsikó ozo	200-194-205-203-190
saltzé ozo	203-227-220-193	sáldokó ozo	196-190-204-196-187
Hiru silabakoak:			
èostéozo	203-194-210-203-169	èosekó ozo	213-208-189-218-196-170
èkartzé ozo	210-194-210-203-169	èkarrekó ozo	198-193-182-201-198-168
íkusté ozo	206-194-226-214-187	íkuseló ozo	213-210-180-215-207-174
bèotzé ozo	201-192-221-215-189	bèotokó ozo	201-195-193-204-192-171
èskatzé ozo	207-198-203-184-176	èskatokó ozo	207-204-193-210-193-174

Aspektu ez perfektoa eta geroaren⁴ morfemek azentu lexikalez markaturik daudela esan dezakegu, aditz partizipioaren azentua bigarrenkari bihurtzen da, azentu nagusira orduko silabaren bat badago.

	jo+tzén+dozo	erre+tzén+dozo	beoto+tzén+dozo
[→1]	jó+tzén+dozo	érre+tzén+dozo	béoto+tzén+dozo
Afijazioak	jótzén dozo	érretzén dozo	béototzén dozo
Errege-fono.	jótzé ozo	érretzé ozo	béotzé ozo
Azentua egokitu	jotzé ozo	èrretzé ozo	bèotzé ozo

4. 'N'z amaituko partizipioekin geroaldia egiteko -EN erabiltzen da; tautelan eáin baino ez dugu paratu; hala ere, ondoko adibideetan ikusten den bezala, beronek ere azentua beregaintzen du:

esáin dot:	198-221-188
emáin dot:	193-215-178

	jo+kó+dozo	erre+kó+dozo	beoto+kó+dozo
[→1	jó+kó+dozo	érre+kó+dozo	béoto+kó+dozo
Afijazioak	jókó dozo	érrekó dozo	béotokó dozo
Errege. fono.	jókó ozo	érrekó ozo	béotokó ozo
Azentua egokitu	jokó ozo	èrrekó ozo	bèotokó ozo

5. ONDORIOAK

Aztertu ditugun materialetatik atera ditzakegun ondoriotarik nabarmenena azentu nagusia lehen silaban ezartzea dugu, [→1 erregelaren arabera hain zuzen. Ezaugarri nagusiak bilduta, honela eman ditzakegu:

1. Azentu nagusia hitzarena da: [→1
2. Hitz markatuek azentua oinaren azken silaban dute: 1←]
3. Zenbait kasutan azentu bigarrenkariak agertzen dira.
4. Morfema batzuk azentu lexikalez markaturik daude.

LABURPENA

Artikulu honetan Alli herrian jasotako azentuari buruzko neurketen emaitza akustikoak eta euren azterketa aurkezten dira. Barietate honen ezaugarriarik nabarmenena azentu nagusia hitzaren lehen silaban ezartzea da. Hitz markatuak dira azentua azken silaban daukatenak. Azentua eta artikuluaen bokala egokitze erregelen arteko erlazioak ere aztertzen dira. Deklinabidearen azentu moldeak aztertu ondoren, aditz jokatuaren azentua ikusten da, morfema markatuak aztertutik.

RESUMEN

En este artículo presentamos los datos acústicos y su análisis de las medidas que hemos realizado sobre el modelo de acento del pueblo de Alli. La característica más notable de esta variedad es el hecho de insertar el acento principal en la primera sílaba de la palabra. Las palabras marcadas son aquellas que lo portan en la última sílaba. También se analizan las relaciones entre el acento y las reglas de adecuación de la vocal del artículo. Después de analizar el acento en la declinación, repasamos el acento de los verbos conjugados, analizando los morfemas marcados.

RÉSUMÉ

Nous présentons dans cet article les données acoustiques et leur analyse des mesures que nous avons réalisées sur le modèle d'accent du village Alli. La caractéristique la plus notable de cette variété est le fait d'introduire l'accent principal sur la première syllabe du mot. Les mots marqués sont ceux qui portent l'accent sur la dernière syllabe. Les relations entre l'accent et les règles

de combinaison de la voyelle de l'article sont déclinaison, nous avons revu l'accent des verbes conjugués, en analysant les morphèmes marqués.

SUMMARY

In this article we present acoustic data and the analysis thereof which relates to the accent model present in the village of Alli. The most notable characteristic of this variations is the insertion of the stress on the first syllable of the word. The marked words are those which are stressed on the last syllable. The relationships between the stressed syllable and the rules for the combination of the stressed syllable and the vowel in the article are also examined. After the analysis of the stress in the declension, the stressed syllable of conjugated verbs is reviewed with the analysis of the marked morphemes.

